

ELOSEGUI-KO ON JOSE JAUNARI

BERE DEI EDO PREGOI BAKARREKO IGANDEAN

TOLOSAN, GARAGARRILLAREN 7.^{an} 1891.^{garren} URTEAN.

Igarondoko chori guziyak
 ¡¡Nola diguten kantatzen!!
 «Gure erriko Erregearen
 Semea dala ezkontzen»
Oriya deitzen zayon ibayan
 Arrayak dabiltz dantzatzen
 Elosegui-ko Prinzipe aren
 Ezkontza ona gozatzen.

Uzturre gaña Izazkunekiñ
 Eta Urkizu mendiyak,
 San Antoniyo z oroitu eta
 Guziro daude alayak:
 Pozaren pozaz loretu dira
 Beotibar-ko zelayak,
 Bai eta ere Laurak-bateko
 Kondaira zoragarriyak.

Zure ezkontza kantatzen daude
 Birigarro ta zozuak...
 Eta ¿nola ez, baldiñ nai badu
 Birjiña Izazkunguak?
 Zure ezkontza zabaltzen dabiltz
 Nun naiko eche-usuak...
 ¿zergatikan ez, ala nai badu
 Ama doloretakuak?

Zure gloriaz pozturik daude
 Langille fabrikakuak...
 Atsegiñ degu inbidirikan
 Ez degun Tolosakuak:
 Kontentuz daude errukitsuen
 Eche Santuko gaiñuak...
 Gaude gozaten Euskal-erriko
 Fuerista egiazkuak.

Eloseguitik, Larrañagatik
 Datozen izar berriyak,
 Izango dira Jaungoikoaren
 Eleizen argigarriyak:
 Dira izango salbatutzeko
 Ibero-tarren mendiyak...
 Izango dira aitaren gisan
 Guzikko maitagarriyak.

¿Zer kantatutzen ote dizute
 Zure baratzan choriyak?
 ¿Zer kantatu nai ote dizute
 Jauregi¹ ikusgarriyak?
 Ibillitzeko atz-erriyetan²
 Asetzen zuen begiyak,
 Eta len bait len etorritzeko
 Bertara ezkon berriyak.

RAMOS AZKARATE-KOAK.



(1) Palacio.

(2) Pueblos extraños.